

ZOSTER HERPESEN AURKA BABESTEA

Zoster herpesa (ZH) infezio birala da, **barizela-zoster birusa berraktibatzeak** eragindakoa. Barizela izan eta gero, birusa latente gelditzen da nerbio-ehunean eta, ondoren, berriz aktibatzen da immunitate-sistemako alterazio batzuegatik.

Mina eta aldebakarreko larruazaleko erupzio besikularra eragitea du bereizgarri.

Konplikazio ohikoenetako bat herpes birusagatiko neuralgia da; oso mingarria eta ezgaitzailea da eta pazienteen bizi-kalitatean eragin handia izan dezake.

Nork pairatu dezake ZHa?

Barizela zosterraren birusaren ondoriozko infekzio naturala izan duen orok arriskua dauka zoster herpesagatiko berraktibazioa pairatzeko. Hori izateko arriskua bereziki handitzen da 50 urtetik aurrera eta **immunodepresio** egoeretan.

ZHren prebentzioa eta kontrola

Gaur egun, Nafarroan txerto **inaktibatu** bat ematen da (Shingrix®).

Infekzio hori prebenitzeko eta kontrolatzeko modurik eraginkorrena da.

- Pauta: **2 dosi**
- Dosien arteko tartea: 0-2 hilabete
- Babesaren iraupena: uste da gutxienez 10 urtekoa dela.

Txertoa (Shingrix®)

Erakutsi du % 95etik gorako **eraginkortasuna** duela zoster herpesaren aurkako **prebentzioan**, eta txerto segurua eta eraginkorra dela. Honako hau eragin dezake: mina txertoa jarri den tokian, muskuluetako mina, nekea eta buruko mina.

Txertaketaren indikazioak

Gaur egun, Nafarroan, honako hauei ematen eta finantzatzen zaie txertoa:

· Zoster herpesa izateko **arrisku handiagoa** duten 18 urtetik gorako pazienteak:

- Zelula ama hematopoietikoen transplantea
- Organo solidoen transplantea
- Tumore solidoak, kimioterapiarekin tratatzen ari direnak
- GIBak eragindako infekzioa
- Hemopatia gaiztoak
- Zoster herpesaren bi 2 aurrekari pertsonal edo gehiago
- Terapia JAKaren aurkako farmakoekin
- Terapia tratamendu immunoezabatzaileekin
- **65 urteko eta 75 urteko** gainerako biztanleak



Kontraindikazioak

Txertoa ez zaie jarri behar txertoaren edozein osagairekiko

hipersentikortasuna duten edo aurretiko dosi batean **anafilaxia** izan duten pertsonen.

Prebentzio neurriak

Zoster herpesaren aurrekariak: komenigarria da txertaketa 6-12 hilabete atzeratzea biztanle osasuntsuei. Immunodepresioa duten pertsonen kasuan, txertoa jartzen ahal zaie zoster herpesa sendatu ondoren.

Txertoa hartu edo **barizela** berriki pairatu bada: gomendatzen da zoster herpesaren aurkako txertaketa bereiztea gutxienez 8 aste.

Haurdunaldia: Ez da gomendatzen txertoa jartzea haurdunaldian.

Txertaketarako sarbidea

Indikatuta dagoenean, pazienteak bideratu bere osasun etxera. Zalantzarik izanez gero, bidali IEP Medikuntza Prebentiboaren Zerbitzura (NOPLOI edo NOU).

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

